

Santa Pola-ko kostaldea.

Itsasoaren inguruan giraka dabillen lurra. Hori da Santa Pola herria, bertan aurkitutako aintzineko giza kokalekuek adierazten diguten bezala.

Alicantetik 17 kilometrotara, Santa Polak, Mediteraneoaren arrainontziteri garrantzitsuenetariko bat dauka.

52 kilometro karraturen kostaldeko udalerrri txiki honek, landugabeko alderdiez inguraturik dago.

Santa Pola-ko itsasargia 1858.garren urtean berreraiki zen XVI.garren mendeko itsasdorre baten ondakinaren gainean. Kriselu batek argitua, zelatari dorre askoren erara, Mediterraneo kostaldea berbere piratengandik eta kontrabandistengandik babesteko eraiki zen. Gaur egun, erreferentzi-puntu bat izaten jarraitzen du labarraren goikaldean, itsaso mailaren gainetik ehun bat metrotara kokaturik.

Hondartzaren 11 kilometroek kontraste harrigariak erakusten dituzte itsasmuturraren kala malkartsu eta hondarretako leuntasunaren artean.

Hondartzak ezinobeak dira windsurfarren praktikarako. Hain zuzen ere, Santa Polan urtero ospatzen dira kirol honetako nazioarteko txapelketa ezberdinak.

Santa Pola-ko uretan erraza da mediterraneoaren itsasertzeko arrain mota guztietarikoa ikustea, itsas belardi zabaletan aurkitzen bait duten egoitza eroso eta mantengai ugaria.

Posidoniak, itsaspeko landareak, 3000km karratu baino gehiago estaltzen du iberiar mediterraneoko itsasertzetan. Haren kimuak hogeitamarrenbat urte bizi izan ohi dira. Bizitzarako jangai ederra eskaintzen duen itsaspeko inguru aberats honek, ehundaka arrain motari babesa ematen dio.

Bada 500 urte, zelatari dorreek ortzmugari begiratezen diotela. Escaletes deitutako itsasdorrea oradik ere zutik mantentzen da; seguru asko islam denboretan kea botatzen zuen egunez, eta gauez, haren argia zen itsansontzien gidari.

Leku estrategikoetan kokatutako dorre horiek, etsaien heltzeaz ohartarazi zieten hubilgo herritarrei. Gaur, haren horma isilen gainetik, antxetak bakarrik jira ta biraka dabilta.

Santa Polatik gertu dagoen hezegune batetan, hogeigarren mendearen hasieratik, Parque Natural De Las Salinas izeneko natura parkea kokatzen da.

Bi milla eta bosteheun lur hektarea estaltzen duen urmael zabal honetan, ehundaka falmenkok hartzen dute pausaleku urteroko hegoalderuntzarako iragaitean.

Gizonak menderatu du urteetan zehar Mediterraneoaren uraren lurruntzearen prozesua. Edertasun paregabeko urgazi hauetan, oraindik ere, ehundaka txori eta bestelako organismoak elikatzen dira.